

## PATXI LASA JAUREGI-RI ERANTZUNEZ

*Txillardegi*  
(Los Angeles, 1982ko Otsailaren 8)

EUSKERA-n, XXVI, 1981, 67-91 orr., *Mugagabea eta beste zenbait gauzatxo Juan Tartasen 'Ontsa hiltzeko bidean'* deritzan artikulua dator, Patxi Lasa Jauregik sinatua.

Oso interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zait horrelako lanak egitea.

Kasu honetan nire iritzi batzuk bereziki aipatzen dituenez gero (ikus 67-68 orr. batez ere); eta azterketaren ondorioztat ematen dituenak (ikus 78.orr. oharra) zuzenak ez direnez gero, lerro hauek hurrengo EUSKERA-n argitaratzea eskertuko nizueke.

*"Mugagabea numeralekin"* deritzon pasartean (76-78 orr.) 25 adibide ematen ditu P. Lasak.

Denek ez dute balio, ordea, *"Mugagabea numeralekin"* arazoa argitzeko.

4, 7 eta 21 adibideak *deklinabideari* dagozkio, eta ez aditzarekiko komunztadurari.

1, 6, 9, 12, 13, 20, 22 eta 24 delakoak, *pluralak* dira, eta ez mugagabeak.

Beraz: 14 adibide gelditzen dira.

Hona hemen zerrenda:

2.—*Ediren DUZU LAUR kapitulu*

3.—BADIZU BI gauza

5.—Bi bekatu... BAITZUTIAN kometitu

8.—BI ithurri... egin ZIALA

10.—eman ZIAN... ZAZPI seme eta HIRUR alaba

11.—eman ZERON... ZAZPIMILLE ardi

14.—MILLA mesperexu... egin ZION

15.—MILLA injurio eta MILLA mesperexu egin ZIAN

16.—HIRUR gauza gomendatzen DRAUZIET

17.—BI gauza behar DA

18.—Ikhusi DU BI sagu

19.—(Ez dakigu plurala den: esaldi osoa behar)

23.—Behar ZIAN BI kondizione

25.— BADU gure etsaiak MILLA artifizio

19.—horretaz irizpide sendorik ematerik ez baitago (itxuraz plurala da, baina aditza singularrean), hau dugu:

BATETAN (5), aditza pluralean (ez ote da errelatiboa?).

HAMAHIRUTAN, aditza singularrean.

Hitz batez, % 93-tan mugagabearekin aditza SINGULARREAN. Askotan idatzi izan dudanaren arauera.

78.orr.ko Oharra, beraz, egiaren kontra idatzia da.

Besterik gabe, agur!